

ERABILERA BALDINTZAK

Visa SmartDelay™ zerbitzuan izena eman aurretik, irakurri arretaz zehaztaper eta baldintza hauek.

1. Visa SmartDelay programaren atalak

Visa SmartDelay Kutxabank-en izenean eskaintzen dute LoungeKey Limited-ek eta bere afiliatuek. Hitzarmen hau sinatuta, berretsi egiten duzu behar besteko legezko ahalmena duzula kontratu lotesle bat egiteko eta adinez nagusia zarela. Era berean, gure pribatutasun politika onartzen duzu, ikusgai dagoena [hemen](#).

2. Aukeragarritasuna

Zerbitzu hau erabiltzeko, izena eman behar duzu Visa SmartDelay-n, helbide honetan: <https://visa.smartdelay.com/Kutxabank>. Visa SmartDelay gure nahierara eskaintzen da, eta hegaldi hautatuek bakarrik betetzen dituzte erregistroko baldintzak.

3. Nola erabili SmartDelay?

Zure hegaldia hegaldiaren irteera ordu berria baino lehenago erregistratzen baduzu erabili ahal izango duzu Visa SmartDelay zerbitzua. Eskubidea izango dugu Visa SmartDelay zerbitzua ez eskaintzeko, zure datuak edo zurekin doazenenak ez badituzu zehaztasunez erregistratzen.

Zure hegaldiaren irteera hegaldiei jarraipena egiteko gure sistemak gainbegiratuko du. Aldez aurretik erregistroa ongi egin baduzu eta itxarongelan lekua badago, Visa SmartDelay-k aireportuko itxarongelara sartzeko kupoiak bidaliko dizkizu posta elektronikoz, bai zuretzat, bai zurekin doazen beste 3 pertsonarentzat, gehienez, baldin eta hegaldiei jarraipena egiteko gure sistemak adierazten badu zure hegaldiak 60 minutotik gorako atzerapena duela ("Atzerapen muga"). Era berean, mezu elektronikoen berri emateko SMS bat ere jasoko duzu. Visa SmartDelay erabiltzeko ezinbesteko baldintza da erregistroa egin zenuenean adierazitako posta elektronikoko kontura sartu ahal izatea eta VIP gelara sartzeko mezu elektronikoa erakutsi ahal izatea.

Horretarako, gure hegaldien araketa sistema bakarrik hartuko dugu aintzat, aireportuko VIP geletan sartzeko baldintzak betetzen dituzun zehazteko. Jakin ezazu ezin dugula bermatu hegaldien araketa sistemaren zehaztasuna; beraz, ez duzu haren mende egon behar zure hegaldiaren irteera ordua aurkitzeko.

Zuk eta hegaldi berean zurekin doazen beste 3 pertsonak erabili ahal izango duzue Visa

SmartDelay zerbitzua. Ezingo duzue erabili bidaiaren beste ezein egunetan.

Visa SmartDelay-ren baieztapenezko mezu elektronikoan identifikatuta eta izendatuta ageri diren bidaiariak bakarrik sartu ahal izango dira aireportuko itxarongelan.

Visa SmartDelay zuretzat eta zurekin doazen pertsonentzat bakarrik izango da: zerbitzu besterenezina da, eta ezin da ez kobratu, ez aldatu.

VIP gelara sartuta, bertako arauak eta politikak onartzen dituzue, bai zuk, bai zurekin doazen bidaiariak.

Zuk eta zurekin doazen bidaiariak badakizue gelako gonbidatuen eskura dauden otordu zerbitzuek eta negozio edo biltzar gelek kargu gehigarriak izan ditzaketela. Zu eta zurekin doazen bidaiariak izango zarete kargu horien erantzule bakarrak. Guk ez ditugu ordainduko, horien jatorria edozein dela ere.

Espresuki onartzen dituzu guk emandako Zerbitzuari ("Erabilera Baldintzak") aplikagarriak zaizkion erabilera baldintza guztiak. Egongelan sartzeko gure baldintzak hemen aurki daitezke: <https://loungefinder.loungekey.com/pass/conditions-of-use>

Hala badagokio, aireportuko egongelara sartzean, egongelako arauak eta politikak betetzea onartzen duzu.

4. Prezioa eta ordainketa

Zerbitzu hau doakoa da. Visak beretzat gordetzen du edozein unetan tasa bat kobratzeko edo hori aldatzeko eskubidea.

5. Erantzukizuna

Ez baditugu zehaztaperen eta baldintza hauek betetzen, VIP geletan sartzeak dakarren gutxieneko balioa bakarrik hartuko dugu gure gain.

Ez dira gure ardura izango zehaztaperen eta baldintza hauek ez betetzeak ekar ditzakeen galerak, kategoria hauetan bereizten direnak:

- irabazi edo sarreren galera;
- negozio galera;
- etekin galera; edo
- aurreratutako aurrezkien galera.

Gure kontrolpean ez dagoen gertaeraren baten ondorioz ez baditugu betetzen gure betebeharrak edo atzeratu egiten bagara, ez gara gu izango erantzuleak. Gure kontrolpean ez dagoen gertaera bat zera da, gure ohiko kontroletik at geratzen den ekintza edo gertaera oro, honako hauek, besteak beste: grebak, itxiera patronalak edo hirugarrenen bestelako ekintza industrialak, iskanbila zibilak, istiluak, inbasioak, eraso terrorista edo eraso terroristen mehatxua, gerra (deklaratua edo deklaratu gabea) edo gerrarako mehatxua edo prestaketa, suteak, leherketak, ekaitzak, uholdeak, lurrikarak, hondoratzeak, epidemiak edo beste hondamendi natural batzuk, edo telekomunikazio sare publiko edo pribatuetako matxurak.

Hitzarmen honetako inongo atalek ez du gure erantzukizuna alde batera uzten edo mugatzen kasu hauetan:

- gure arduragabekeriak eragindako heriotza edo lesio pertsonalak;
- iruzurra edo adierazpen faltsu eta iruzurtia;
- 1979ko Salgaien Legearen 12. atalean edo 1982ko Ondasun eta Zerbitzuen Horniketari buruzko Legearen 2. atalean ageri diren betebeharrak inplizituak edo ez betetzea; edo
- gure erantzukizuna ukatzea edo ukatzen saiatzea legez kontrakoa izango litzatekeen beste edozein egoera.

Aireportu bateko itxarongela baten zerbitzuak erabiltzen badituzu, gela horrek bere gain hartu beharko du erabilera horretatik eratorritako galera edo erantzukizun oro. Ez dugu esku hartuko zure eta haien arteko eztabaidetan.

Ez dugu inolako bermerik ematen gelen bidez eskura daitezkeen produktuen zerbitzuengatik.

Honako hau onartzen duzu: babestu eta aseguru egingo duzu Collinson Service Solutions Limited, gu eta gure enpresak, kontseilariak, zuzendariak, langileak eta ordezkariak (kolektiboki 'alde indemnitzatuak'), eta alde indemnitzatuak salbuetsi egingo dituzu Visa SmartDelay-ren erabileratik erator daitezkeen pertsonen lesio edo heriotzekin edo jabetzen kalte edo suntsiketekin lotutako erantzukizun, kalte, galera, eskaera, auzi, epaiketa, kostu eta gastu guztietatik (neurritzko lege ordainsariak barne). Indemnitazio hori ez zaie aplikatuko alde indemnitzatuen arduragabekeria larriko ekintzei edo jokabide desegokiei.

6. Iraupena eta ezeztapena

Zure txartela ezeztatuz gero, hitzarmen hau amaitu, eta zerbitzua baliogabetu egingo da. Visa SmartDelay zerbitzua erabili ostean ezeztatzen baduzu zure Kutxabank txartela, itxarongelara sartzearen gutxieneko balioa kobratu ahal izango dizugu.

7. Oharrak

Gurekiko komunikazioa nagusiki elektronikoa izango dela onartzen duzu. Kontratuko helburuetarako, komunikazio elektronikoa onartzen duzu, baita bide horretatik bidaliko dizkizugun kontratu, abisu, informazio eta komunikazio guztiek idatzizko jakinarazpenak izateko beharrezko baldintza guztiak betetzen dituztela ere. Baldintza horrek ez die eragiten legez dagozkizun eskubideei. Baliteke posta elektronikora sartzeko tokian tokiko kargu bat ordaindu behar izatea Internet erabiltzeagatik, horretarako adostua duzunaren arabera. Visa SmartDelay zerbitzura sartzeko ekar ditzakeen gastuen erantzule bakarra zu izango zarela onartzen duzu.

8. Hitzarmena aldatu eta baliogabetzeko eskubidea

Eskubidea dugu hitzarmen hau edozein unetan eta berehala aldatu edo deuseztatzeko.

9. Txartelaren titularraren zerbitzua

Zerbitzuaren gaineko kexaren bat baduzu, idatzi helbide honetara: customerservice@visa.smartdelay.com. Zure kexa jasotakoan, erantzuna igorriko dizugu, edo erantzuna gutxi gorabehera noiz jasoko duzun jakinaraziko dizugu. Gure helburua beti ongi jardutea da. Akats bat eginez gero, lehenbailehen zuzentzen saiatuko gara.

10. Beste zehaztapen garrantzitsu batzuk

Gure eskubideak eta betebeharrak beste erakunde bati laga diezazkiokegu baldintza hauetan; hori eginez gero, idatziz jakinaraziko dizugu, baina horrek ez ditu aldatuko zure eskubideak edo gure betebeharrak.

Kontratu hau gu bion artekoa da. Beste inork ez du izango bertako baldintzak betearazteko eskubidea.

Zehaztapen eta baldintza hauetako paragrafo bakoitzak gainerakoetatik bereizita funtzionatzen du. Auzitegi edo autoritate batek erabakitzen badu horietako bat legez kanpokoa dela, gainerako paragrafoek indarrean jarraituko dute, bete-betean.

Zure betebeharrak bat betearazten ez badizugu, edo ez baditugu gure eskubideak zure aurka erabiltzen, edo atzeratu egiten bagara horretan, horrek ez du esan nahi uko egin diegunik zure aurka egiteko eskubideei edo ez dituzula zure betebeharrak bete behar. Betebeharrak bat betetzen ez duzunean zure aurka egiteari uko egiten badiogu, idatziz bakarrik egingo dugu, eta horrek ez du esan nahiko automatikoki gauza bera egingo dugunik aurrerantzean ere.

Zehaztapen hauek Ingalaterrako legeek arautzen dituzte. Bai zuk eta bai guk Ingalaterrako auzitegietako jurisdikzioari men egitea adosten dugu.